

Oso erresuma lurtarra

Koldo Sagasti

Erakunde pribatu bateko ordezkaria agertu da jabetza erregistroan ordura arte jaberik ez zuen orube edo ondasun higiezin bat bere izenean inskribatzeko. Izapidearen kostua ordainduta, 30 euroren bueltan, bere izenean jarri du eraikin, lursail, etxebizitza edo baseliza bat, magia trikimailua bailitzan. Jokaldi honek izen xelebrea dauka egilea Eliza katoliko sakrosantua denean: immatrikulazioa. 1998an Jose Maria Aznarrek frankismo garaietatik berreskuratu eta legeztatu zuen jardunbide hori baliatuta ez dira gutxi Elizak bere izenean erregistratu dituen ondasunak,

zehatzago, 35.000 inguru espainiar estatuan, 3.000 Nafarroan eta 530 EAEn. Aberastasuna metatzeko lasterketa zoro horretan behinola udalenak edo, besterik gabe, herri ekimenarenak ziren mota guztietako onibarren jabetza bereganatu dute isilean, mahastietatik hasita Oiz mendiko tontorrera, Donostiako edo Tuterako katedraletatik pasatuta. Egia da, halaber, Gobernuarekin adostutako akordio baten ondorioz, erakunde katolikoak damua agertu, ondasun horietako gutxi batzuen egoera irregularra aitortu, eta administrazio publikoari bueltatzeko prestasuna agertu duela. Baina bueltatutakoa ez da

iritsiko, nonbait, bereganatutakoaren %2ra ere. Negozio borobila.

Bitxia da beren erresuma zerutarra dela eta bizitzaz haragoko munduan gozatuko dutela aldarrikatzen duten horiek hainbesteko grina izatea ondasun materialak bizitza honetan pilatzeko. Ez dakit nik, baina esango nuke istorio honetan zerbaitek kale egiten duela.

Ez dakit betiereko bizitzaren promesa egiten digutenean edo ondare komuna lapurtzen digutenean, baina batean edo bestean iruzur egiten digutelakoan nago. Edo batek daki, akaso bietan. •

San Valentin

Amagoia Mujika
Telleria

Zaila da San Valentinen gezi komertzialetik ihes egitea. Iragarrien bonbardaketa maitasun erromantikoz jantzita. Zein gozoak bonboiak, zer dotoreak puntilladun bularretakoak, zenbat maitasun inuzente irribarretsu, zenbat bake arrosa, zenbat erotika gorri...

Baten batek honezkero pentsatuko du zer nezesidade dagoen hain gauza erromantikoa, polita, maitasunezkoa, melenga, gozoa zalantzan jartzeko. Ospatu nahi duenak egin dezala eta ospatu nahi ez duenak paso egin dezala. Kito. Besteren batek hasperen egingo zuen honezkero, 'patriarkatuak zeharkatutako maitasun eredu ez-osasun-

tsuen' inguruko 'txapa' datorkiola igarrita.

Imajinatu hamabi urteko haurrak, 'nobioak' diren bi lagunek elkarrekin hilabete daramatelako festatxo bat antolatzen. Imajinatu hamabost urteko mutil bat etxera korrika bizian eta larrituta, adin bereko beste mutil batek jipoi bat eman nahi diolako bere kuadrillaren laguntzarekin. Zergatik? 'Bere' neskarekin 'rollo' bat izan zuelako aurrekoan. Imajinatu hemezortzi urteko neskatoa parranda giroan haserre. Behin eta berriz esan dio ezetz herritik ezagutzen duen mutil horri. «Ezetz esan dizut aizua, bizitza gogorra da», bota dio neskatoak. Eta besteak eran-

tzun gogorra beste gauza bat duela berak une horretan.

San Valentinek beste aldea dauka, buelta eman eta josturak ikusten zaizkio. Jostura horietan daude mina ematen duen maitasuna, norbait zure jabetzakoa sentitzea, jeloskortasuna maitasun neurgailua dela pentsatzea, ez-maitatua sentitu denaren amorrua... Askok maite duenak asko sufritzen du eta, maiz, asko sufriarazten du. Bada garaia 'maitatzeko' modu horiek mahai gainean jarri, labana batekin erditik ebaki eta zeren gainean eraikiak dauden ikusteko.

Ez da iragarki melosoek sortu dezaketen nekea, egunero emakumeak erasotzen eta akabatzen dituen eredia da. •